

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko otsailaren 7ko erabakiaren laburpena, zeinaren bitartez Gasteizko Udalak elkartasun globalerako sentsibilizazio-proiektuetarako 2020. urtean emango dituen dirulaguntzak arautuko dituen deialdi publikoa egiten baita

BDNS(Identif.): 495736

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/GE/eu/index>):

Lehena. Onuradunak

Irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko organizazio edo entitateek eskatu ahal izango dute dirulaguntza, baldin eta beren jarduerak deialdi honen xedearekin bat badatoz, eta Gasteizen duten presentzia eta jardunari eusten badiote.

Bigarrena. Helburua

Gasteiztarren artean elkartasun-jarrerak sustatzeko eraginkorrak diren kalitatezko ekimeneztarako laguntza ematea deialdiaren xedea, halakotzat joko baitira sentsibilizazio-ekintza puntualak, herritarrei informazioa emateko eta kontzientzia harrarazteko jarduerak, nolahi ere Hegoaldeko herrialdeetako errealitateaz eta maila globalean dauden desberdintasun ugarietara irunazten dieten kausez jabetzeko aukera emango dutenak.

Hirugarrena. Oinarriak

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 7an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Elkartasun globalerako sentsibilizazio-proiektuetarako deialdiaren zuzkidura 28.834,00 euro da guztira.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 2020ko apirilaren 3a arte. Garaiz eta behar bezala aurkezten diren eskabideak bakarrik onartuko dira. Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak eskuragarri dagoen eredia baliatuz aurkeztu beharko da eskabidea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 7a

Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko Administrazio Zerbitzuen burua
ROSA ANA URTARAN URTARAN